

1.1. San Ignacio (Íñigo) de Loyola, presbítero, SJ (1491-1556)

Fundador de la Compañía de Jesús (Jesuitas) Patrono de las diócesis de San Sebastián y de Bilbao. Solemnidad



1.1. Loiolako San Ignazio (Iñigo), apaiza, SJ (1491-1556)

Jesusen Konpainiaren fundatzailea (Jesuitak) - Bilbo eta Donostiako elizbarrutietako Zaindaria. Festaburua

Infancia

San Ignacio de Loyola nació en 1491 en la casa torre que tenía su familia en Azpeitia. Fue el decimotercer hijo de Beltrán de Oñaz y María Sánchez de Licona. Fue bautizado con el nombre de Íñigo en la parroquia de San Sebastián de Soreasu. La pila bautismal en la que fue bautizado el guipuzcoano más universal se conserva como recuerdo a día de hoy, debajo del coro de la parroquia, a modo de pieza de museo. En la actualidad se utiliza otra pila para bautizar. Íñigo pasó su infancia en este valle de verdes prados, situado entre Azpeitia y Azkoitia, atravesado por el río Urola y rodeado por Izarraitz, Izazpi y otros montes.

Una mujer de nombre María Garín que vivía en el caserío Egibar, próximo a la torre de la familia Loyola, le amamantó. Y gracias a esta nodriza sabemos hoy día en qué año nació Íñigo. En este entorno Íñigo aprendería su primera lengua, el euskara; en este ambiente haría sus estudios y amigos; es entonces cuando habría aprendido las costumbres y juegos de aquella época y entraría en contacto con el palpito del pueblo; también daría los primeros pasos y empezaría a venerar a la Virgen de Olatz del barrio de Loyola ante su bella imagen gótica.

La familia Loyola era muy conocida. En aquel tiempo integraba una de las estirpes más famosas de Gipuzkoa, ya que formaba parte de los denominados parientes mayores. La casa torre de Loyola era una fortaleza digna de semejante linaje. Sin embargo, Juan, el abuelo de Íñigo, perdió en la contienda entre oñacinos y gamboinos, y como castigo, entre otras cosas, le obligaron a derribar la casa torre de Loyola que era una fortaleza edificada en piedra. De esta forma, la parte alta de la casa torre estaba construida en ladrillo cuando Íñigo vino a este mundo.

Juventud

Cuando tenía dieciséis años su padre murió y quedó huérfano. Su madre había fallecido con anterioridad. Cuando el padre vio que se encontraba en las últimas, puso a su hijo menor, Íñigo, bajo la custodia de Juan Velázquez Cuéllar, hombre de confianza de Fernando el Católico y Contador Mayor de Castilla. Su mujer, María

Haurtzaroa

Loiolako San Ignazio 1491n jaio zen, familiak Azpeitian zuen dorretxean. Loiolatarren sortetxe ospetsuko Beltran Oinaz eta Marina Sánchez de Liconaren hamahirugarren semea zen. Iñigo izenarekin Soreasuko San Sebastian parrokian bataiatua izan zen. Gipuzkoar unibertsalena bataiatzeko erabili zuten ponte hura orogarritzat gordea dago gaur ere, parrokiako korupean, museoko pieza gisa, beste ponte bat erabiltzen baita orain bataiorako. Urola ibaiak zeharkatzen duen eta Izarraitz, Izazpi eta inguruko beste mendiek Azkoitia eta Azpeitia artean sortzen duten zelai berdeetako bailaran eman zuen Iñigok haurtzaroa.

Loiolatarren etxetik hurbil Egibar baserrian bizi zen Maria Garin izeneko emakumeak hazi zuen bere bularrez Iñigo, eta ama-ordeko honi esker dakigu zein urtetan jaio zen. Inguru honetan ikasiko zuen Iñigok bere lehen-hizkuntza, euskara; giro honetan egin izango zituen eskolako ikasketak eta lagunak; orduan ikasiko zituen garai hartako ohiturak, jolasak eta jasoko zuen herri-arnasa; fedean ere hemen emango zituen lehenengo pausoak eta hasiko zen Ama Birjinari Olatz izenarekin deitzen, Loiolako auzoan egun ere beneratzen den irudi gotiko ederraren aurrean.

Loiolatarren jatorria ospe handikoa zen. Garai hartan Gipuzkoan ziren leinuetan ospetsuenetakoa, ahaide nagusiak deitzen artekoa baitzen. Gisa honetako sortetxeari zegokion moduko gotorlekua zen Loiolako dorretxea. Baina Iñigoren aitona Joan galtzaile izan zen oinaztarren eta ganboatarren arteko borrokan, eta Loiola dorretxeiko gotorlekua desagiteko zigorra jarri zioten besteak beste. Horrela, dorretxe izandakoaren goi-partea adreiluz osatua zegoen, Iñigo mundu honetara etorri zenean.

Gaztaroa

Hamasei urterekin, aita hilik, umezurtz geratu zen. Ama lehenago zendu baitzen. Aitak, bere azkena hurbil zela ikusi zuenean, Joan Velázquez Cuéllar jaunaren ardura pean jarri zuen Iñigo, bere seme gazteena. Juan Velázquez hau Fernando Errege Katolikoaren konfiantzako gizona zen eta Gaztelako Kontulari Nagusi kargua zuen, Erregearen

Velasco, era de la familia Loyola y recibió en su hogar a Íñigo como a un hijo, a pesar de que antes ya tenía una familia numerosa de seis hijos y seis hijas.

Esta familia vivía en Arévalo, Ávila, pero por su cargo, tenía fácil entrada en la corte del Rey. La forma de vida, y la actividad de aquella familia, dejó una huella importante en la persona de Íñigo. La educación exquisita allí recibida fue patente a lo largo de su vida, e influyó en su carácter, sus relaciones y su forma de hablar. No hay que olvidar, además, que Íñigo tenía buenas cualidades, sobre todo valor, buen corazón, facilidad para relacionarse, generosidad...

En aquel tiempo que vivió en Castilla se enamoró de una mujer de más alta alcurnia que la de condesa o duquesa. Pero, al parecer, fue un amor platónico y el asunto no siguió adelante. En su juventud, debió tomar parte junto con sus compañeros en los desmanes y travesuras que eran habituales: aprovechándose del ambiente de los carnavales, disputando por alguna mujer y otros asuntos de ese estilo.

Conversión y peregrinaciones

El 12 de agosto de 1517 fallecía su protector Juan Velázquez de Cuéllar sin poderle dejar acomodado. Tuvo que rehacer su vida y se puso al servicio de D. Antonio Manrique Lara, Duque de Nájera, que por entonces era también Virrey de Navarra. Una tía monja de Íñigo le tenía dicho: "no asesará la cabeza hasta que te quiebren una pierna."

En 1512 el Reino de Castilla conquistó el de Navarra, expulsando al rey de origen francés. Queriendo recuperar el reinado, Francisco I de Francia atacó la ciudadela de Pamplona en mayo de 1521, combatiendo Íñigo en la defensa de Pamplona y una bala de cañón le hirió la pierna derecha.

Las primeras curas se las hicieron los franceses, le trataron muy bien, y le llevaron a Loyola para que pudiera restablecerse totalmente. En su casa-torre natal vivía su hermano Martín con su esposa Magdalena de Araoz, que atendió a Íñigo. Las heridas eran tan graves que Íñigo estuvo a punto de fallecer, le administraron los Sacramentos el 28 de junio, víspera del día de San Pedro y San Pablo, a quien tenía mucha devoción, pero sobrevivió.

Le sometieron a una dolorosa intervención en la pierna, porque como consecuencia de la herida le sobresalía un hueso y no podía calzarse bien las botas largas. Por ese motivo y por razones estéticas, a petición suya, decidió operarse, a pesar de ser una intervención muy dolorosa. Tuvo que pasar muchos días de convalecencia como

ondasunen kudeatzaile alegia. Honen emaztea, Maria Velasco, Loiolatarren senitartekoa zen eta semetzat hartu zuten Iñigo, nahiz eta lehendik ere sei seme eta beste sei alabarekin nahiko familia ugaria osatua zuten.

Familia hau Arevalon bizi zen, Avilan, baina bere karguagatik, sarrera handia zuen Erregearen gortean. Etxe hartako bizibideak eta jarduerak arrasto handia utzi zion Iñigori. Han jasotako hezieraren fintasuna nabari izan zuen gerora ere Ignaziok bere izaeran, harremanetan, hizkeran, etab. Ez da ahaztu behar, gainera, berezko dohain onak zituela Iñigok, batez ere adorea, bihotz ona, harremanetarako argitasuna, eskuzabaltasuna...

Gaztelan igarotako aldi horretan, emakume batekin maitemindu omen zen, kondesa edo dukesa baino -altuagoko jatorrikoa zen emakume batekin. Baina, dirudienez, maitasun platonikoa izan zen eta gauza ez zen aurrera joan. Bere gaztarotan, ikusten denez, bere lagun-taldean ohikoak ziren trakeskeria eta bihurrikerietan parte hartu izan behar zuen: inauterietako jolasez baliatuz, neska-laguntzetan haserreak sortuz eta antzeko beste jardueretan.

Konbertsioa eta erromesaldia

1517ko abuztuaren 12an hil zen bera babesten zuen Joan Velázquez Cuéllar. Orduan Nafarroako erregeorde zen Antonio Manrike Lara Najerako Dukearen zerbitzuan jarri zen. Iñigoren izeba moja batek esana zion, ez zara zentzatuko hanka hautsiko dizuten arte.

1512an Gaztelako erreinuak bere agintepean hartu zuen Nafarroakoa, eta frantziar jatorriko errege nafarra bota egin zuen. Frantziako Frantzisko I.ak, erreinua berreskuratu nahirik, Iruñeko gazteluari eraso zion 1521eko maiatzean; Iñigo gaztelu horren defentsan borrokatu zen eta kanoi-bala batek eskuineko zangoan zauritu zuen.

Lehenengo sendaketak frantsesek beraiek egin zizkieten eta oso ondo tratatu omen zuten. Horrela, Loiolako dorretxera eramán zuten erabat sendatzera. Bertan bere anai Martin eta honen emaztea Magdalena Araoz bizi ziren. Iñigo zaindu zuten. Baina zauria larria izan zen eta hiltzear egotera iritsi zen; Sakramentuak hartu zituen ekainaren 28an, debozio handia zion San Pedro eta San Pauloren egunaren bezperan, baina aurrera atera zen.

Ebakuntza mingarria egin zioten hankan, hautsitako hezurra kanpora ateratzen baitzitzaion eta bota luzeak janztea eragozten zion. Horregatik eta hezur hura itxura egokiagoan utzi nahirik, berak hala eskatuta, ebakuntza egitea erabaki zuen, nahiz eta hori izugarri mingarria izan. Egun luzeak gertatu zitzaizkion erialdikoak eta ondorengoak. Zalduntza-

consecuencia de la intervención. Con el objeto de pasar el tiempo pidió para leer libros de Caballerías, pero en la casa torre de Loyola eran más abundantes los libros religiosos. Le trajeron una "Vita Christi" y un libro de la vida de los santos. Viendo los actos admirables de aquellos seguidores de Cristo surgieron en él deseos de hacer algo semejante. Por medio de aquellas lecturas, allí en la casa torre, tocado por la gracia de Dios, Íñigo experimentó un cambio sustancial. Primero se arrepintió de su vida pasada y decidió responder a la llamada que sentía en su interior de vivir según el Evangelio de modo sincero y total. Una noche se le apareció la Virgen María con el Niño Jesús y quedó colmado de su dulzura maternal.

En aquellos tiempos nacieron en su interior deseos muy fuertes de conocer con toda su grandeza la imagen de Dios Nuestro Señor, y su propósito firme era ser su fiel servidor. Para ello, tuvo el deseo de ir a Jerusalén y conocer los santos lugares donde vivió Jesús. Quería conocer mejor a Jesús y su vida para llevar una vida semejante y seguirle. Los de la casa y conocidos notaron la transformación profunda que se realizó en aquel hombre, pues sus conversaciones eran solo sobre asuntos religiosos.

Contaba con 31 años cuando en 1522 abandona Loyola y se encamina hacia Barcelona con la idea de ir a Palestina y hacer grandes penitencias. En ese recorrido, la primera etapa consistió en ir a visitar a la Madre de Aránzazu. Pasó la noche rezando delante de la Virgen e hizo la promesa de vivir en castidad. De allí, subido en una mula, fue hasta Monserrat. Siguiendo el modelo de los Caballeros, pasó la noche en vela a los pies de la Virgen Negra y dejó las armas a sus pies. Desde este momento, debía comenzar a ser un caballero de otro estilo, al servicio de Jesucristo, su nuevo Señor. Hizo una confesión general de toda su vida pasada, se vistió de saco con un vestido largo y tosco, dio sus lujosas ropas de caballero a un pobre y con un bastón en la mano se puso en camino hasta Manresa donde se quedó a vivir. En esta localidad se retira habitualmente a una cueva.

Allí estuvo un año rezando sin parar, haciendo ayunos y otras penitencias. Vivió de las limosnas que le daban. A medida que pasaba el tiempo comenzó a dar catequesis y a cuidar enfermos en el hospital. A partir de su experiencia espiritual, comienza a escribir las primeras notas de lo que, posteriormente, profundizándolo y completándolo, sería el famoso libro de los Ejercicios Espirituales. Cuando salió de aquel lugar llevó consigo un gran tesoro espiritual que le marcó para el resto de su vida.

liburuak zituen atsegin, baina Loiolako dorretxean ugariagoak ziren erlijio-gaietakoak beste horiek baino. Asperturik, denbora nolabait pasa behar eta irakurtzeko zerbait eskatu zuen. "Vita Christi" bat eta santuen bizitzen inguruko liburua ekarri zizkioten. Kristoren jarraitzaile haien egintza harrigarriak ikusita, berak ere antzeko jokabideak izateko gogo sortzen zitzaion. Irakurketa horien bidez, dorretxean, Jaunaren graziak ukiturik, aldaketa nabarmena egin zuen Íñigok. Lehengo bere bizitzaz damutu eta, barruan nabaritzen zuen Ebanjelioaren jarraipen zintzo eta erabatekoan bizitzeko deiari erantzutea erabaki zuen. Gau batean, Ama Birjina Jesus Haurrarekin agertu zitzaion eta haren ama-gozotasunez beterik gelditu zen.

Une horretan, gure Jaunaren jainkozko irudia bere bikaintasun osoan ezagutzeko gogo bizi sortu zitzaion, eta beraren zerbitzari guztiz leiala izatea zen bere asmo sendoa. Horretarako, Jerusalem bisitatu eta han Jesus bizi izan zeneko leku santuak ezagutzeko grina piztu zitzaion barruan. Jesus bera eta haren bizitza hobeto ezagutu nahi zuen, haren antzera bizi eta hari jarraitu. Etxeko eta ingurukoak berehala konturatu ziren aldaketa sakona gertatu zela gizon harengan, beraren solasgaiak erlijio-gauzak bakarrik baitziren.

Hogeita hamaika urte zituen 1522an Loiola utzi, Palestinara joan eta penitentzia handiak egiteko asmoz, Bartzelonarako bidea hartu zuenean. Ibilbide honetan, lehenengo txangoa Arantzazuko Amari bisita egitea izan zen. Gaua otoitzean igaro eta, Ama Birjinaren aurrean, kastitatean bizitzeko promesa egin zuen. Handik, mando gainean, Montserratera iritsi zen. Zalduntzako bere pentsamoldeari jarraituz, beilan igaro zuen gaua eta Andre Maria beltzaranaren oinetan utzi zituen armak. Beste era bateko zalduna izaten hasi behar zuen bere nagusi berriaren, Jesu Kristoren, zerbitzuan. Bizitza osoko aitortza egin, zukukiz egindako soineko luze zakarra jantzi, bere jantzi aberatsak pobre bati eman eta, makila eskuan zuela, bideari ekin zion eta Manresan hartu zuen ostatu. Herri honetako kobazulo batera maiz joaten da.

Han egindako urtebeteko egonaldia aspertu gabeko otoitzean, eta barauak eta beste penitentzia asko egiten igaro zuen. Limosnaz ematen ziotenarekin bizi zen. Baina, denbora joan ahala, katekesia ematen eta ospitaleko gaixoak zaintzen hasi zen. Barruko bere gogoetak bilduz, han idatzi zituen, gerora gaiak sakonduz eta osatuz, Gogo Jardunak liburu ospetsua egiteko erabiliko zituen lehenengo oharrak. Eta leku hartatik atera zenean, izugarritzko altxor espirituala eraman zuen berekin, bizitza osorako markatua utzi zuen altxor espirituala.

Tierra Santa y estudios

Con la intención de estar más unido a Jesucristo, Íñigo desea peregrinar a la Tierra Santa de Jesús, María y José. Fue de Barcelona a Roma, recibió la bendición del Santo Padre y llegó a Venecia mendigando. De allí, en 1523, viajó a Tierra Santa en barco con la idea de quedarse allí; pero sólo pudo permanecer un mes. El Superior de los franciscanos no le dejó residir en Tierra Santa, porque había guerra y corría peligro su vida. En ese mes tuvo experiencias valiosas de alto significado y valor; pero, al mismo tiempo, vio que sus planes no se pudieron cumplir. Eso sí, todo aquello lo recibió como señal de la voluntad de Dios, por lo que tenía que explorar nuevos caminos.

Así, vuelve a Barcelona, buscando orientación a su vida. Vio que era necesario estudiar para hacer apostolado. Comenzó a estudiar la gramática latina con alumnos más jóvenes que él. Tenía entonces treinta y dos años. Después estudió Filosofía y Teología en Alcalá y Salamanca. En esta época enseñaba el catecismo, impartió Ejercicios Espirituales y se dedicó a otros servicios de este tipo. Sin embargo, tuvo problemas con las autoridades eclesiásticas, porque no había completado los estudios y no era considerado entendido en teología. Y decidió ir a París, solo y a pie. Tenías treinta y siete años.

Estudió seis años en la Universidad de París, en el periodo comprendido entre 1528 y 1535, cursando estudios de Filosofía y Teología y logró el título de Maestro en dichas materias. Fue entonces cuando comenzó a utilizar el nombre de Ignacio. Al mismo tiempo que cursaba sus estudios andaba tratando de transmitir a otros compañeros de estudios sus planes. De esta forma hizo unos amigos que estaban de acuerdo con él. Uno de ellos fue Francisco de Javier. San Ignacio les transmitió sus ideas y quedaron maravillados. Principalmente penetró en su interior la pregunta incisiva: “¿De qué sirve ganar todo el mundo si se pierde el alma?” (Lc 9, 25).

Les pareció admirable a aquellos compañeros, como aparece en los Hechos de los Apóstoles, ser compañeros de Jesús y andar en los mismos lugares en que Él vivió. Ese fue inicialmente su objetivo. El 15 de agosto de 1534, por la mañana, en la capilla de San Dionisio de la colina de Montmartre, hicieron los votos de pobreza y castidad, a los que añadieron un tercero: peregrinar a Jerusalén o presentarse al Vicario de Cristo, al Papa, para que los emplease en lo que Juzgase ser de más gloria de Dios y utilidad de las almas. Se puede decir que aquel acto de Montmartre fue el precedente de la fundación de la Compañía de Jesús. Efectivamente, más adelante se formalizaría en Roma la creación de la Compañía de Jesús que se había gestado allí.

Lur Santuak eta ikasketak

Jesus, Maria eta Joserren Lurralde Santuetara joan nahi zuen. Bartzelonatik Erromara joan, Aita Santuaren bedeinkapena hartu eta, eskale moduan, Veneziara iritsi zen. Handik, 1523an, itsasontziz, Lur Santuetarako bidaia egin zuen, han geratzeko asmoz; baina hilabete besterik ez zen egon ahal izan; frantziskotarren buruzagiak ez zion bertan gelditzez utzi, gerrako borrokak zirela-eta arrisku handian jartzen zelako bizia. Hilabete horretan esanahi eta balio handiko bizikizunak izan zituen; baina, aldi berean, bere asmoak hutsean gelditzen zirela ikusi zuen. Nolanahi ere, hori guztia Jainkoaren asmoen seinale bezala hartu zuen. Beraz, bide berriak aurkitu behar zituen.

Horrela, Bartzelonan gertatu zen berriro, noraezean. Apostolutza-lanean aritzeko, ikasketak egitea beharrezko zuela ikusi zuen. Ikasle gaztetxoekin batera, latinen gramatika ikasten hasi zen; hogeita hamabi urte zituen. Ondoren, Alcalan eta Salamancan egin zituen Filosofiako eta Teologiako ikasketak. Bide batez, kristau-dotrina irakasten, Gogo Jardunak ematen eta horrelako hainbat zerbitzu egiten aritu zen. Baina arazoak izan zituen eliz agintariekin, bera ez zelako teologia-gaietan aditua. Eta bakarrik eta oinez Parisera joatea erabaki zuen. Hogeita hamazazpi urte zituen.

Sei urte izan ziren Iñigok Pariseko Unibertsitatean, 1528tik 1535a bitartean, egin zituenak. Filosofia- eta Teologia-ikasketak burutu zituen eta gai horietan maisu titulua lortu zuen. Orduan hasi zen bere buruari Ignazio izena ematen. Ikasketak egiten zituen aldi berean, bere asmoak argitu nahian zebilen. Horrela bere asmoekin bat zetozen lagunak egin zituen. Xabierko Frantzisko zen horietako bat. Iñigok ezagutzera eman zizkien bere asmoak eta liluratu egin zituen. Izan ere, barru-barruraino sartu zien Ebanjelioko galdera zorrotza: «*Zertako du gizakiak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu?*» (Lk 9, 25).

Zoragarria iruditzen zitzairen lagun haiei, Eginetan apostoluak azaltzen diren bezala, Jesusen lagun izatea eta hura bizi izan zen leku berberetan ibiltzea. Hori zuten hasiera batean helburu. 1534ko abuztuaren 15ean, goizez, Montmartre mendixkako San Denis kaperan pobrezia eta kastitateko botoak egin zituzten eta hirugarren bat erantsi: Jerusalemara joatekoa, alegia, edota mundu honetan Kristoren Ordezkoa den Aita Santuaren esku eta esanera jartzekoa, Jainkoaren aintzarik handiena eta arimen ona bilatzeko asmoz. Esan daiteke, Montmartreko gertaera hura izan zela Jesusen Lagundiaren fundazio-aurrekaria. Izan ere, geroago ofizialki Erroman gauzatuko zen Lagundiaren sorkuntza-hazia han erein zuten.

El cambio de planes de Venecia

Debido a su delicado estado de salud Ignacio volvió a Azpeitia en 1535 para reponerse; pero no fue a su casa natal; se quedó en el hospital de la Magdalena a la entrada de Azpeitia. Durante los tres meses que estuvo en Azpeitia hasta su recuperación, se dedicó a ayudar a las personas necesitadas y a enseñar el catecismo a los niños y a toda persona que quisiera escucharle.

Se comprometió con sus compañeros de París para encontrarse en Venecia e ir de allí a Tierra Santa. Tan pronto como se restableció, gracias a la estancia en su pueblo, se encaminó para Venecia. Aquí tuvieron que pasar un largo tiempo de espera ya que, a consecuencia de la guerra con el Imperio Otomano, no encontraron pasaje para ir a Palestina. Fue precisamente en Venecia, el 24 de junio de 1537, a la edad de 46 años, cuando Ignacio recibió el sacramento del Orden junto con algunos de sus compañeros. Soñaba con celebrar su Primera Misa en Jerusalén, pero le resultó imposible. Un año más tarde, el día de Navidad del año 1538, celebró su Primera Misa en Roma, en la Basílica de Santa María la Mayor.

Fundación de la Compañía de Jesús

Durante aquella larga estancia en Venecia, Ignacio hizo una reflexión profunda junto con sus compañeros para decidir lo que tenían que hacer en adelante. Resolvieron ponerse a disposición del Santo Padre y se dirigieron a Roma. Cuando estaban a punto de llegar tuvo una experiencia mística extraordinaria en la iglesia de la Storta; era noviembre del año 1537. En una visión siente que el Señor le dice: "Yo os seré propicio en Roma". Aquel suceso le dio fuerza y luz para llevar adelante la idea de crear un instituto nuevo como orden religiosa. El instituto mencionado se llamaría la Compañía de Jesús. En 1540 el Papa Paulo III les dio la aprobación canónica. Sin embargo, faltaba redactar las constituciones de la nueva orden.

Nombraron Superior General del Instituto a Ignacio y él se quedó en Roma dedicado en cuerpo y alma a esta nueva responsabilidad. El quehacer y el objetivo de la recién creada Compañía de Jesús en aquellos primeros años fue cumplir la petición del santo Padre de cultivar y difundir la fe de la Iglesia.

En los 15 últimos años de su vida, junto con sus compañeros, se dedicó a escribir las Constituciones del instituto, al trabajo pastoral, a la atención de los problemas sociales, a enviar a promover las misiones y a organizar la formación correspondiente a los estudios superiores. Las Constituciones de la Compañía de Jesús han sido consideradas como modelo de sabiduría y buen sentido desde el punto de vista normativo y espiritual. En efecto, desde entonces ha habido muchas otras congregaciones que han tomado esas constituciones como punto de

Veneziako asmo-aldaketa

Gaixotasunak Azpeitira itzultzera behartu zuen 1535ean, osasuna zaintzera; baina ez zen bere jaiotetxera joan; Azpeitiko sarrerako Magdalena ospitalean gelditu zen. Azpeitiko haurrei eta nahi zuen jende guztiari kristau dotrina erakusten eta behartsuei laguntzen aritu zen hiru hilabetez, sendatu zen arte.

Pariseko lagunekin Venezian elkartzekoak ziren, handik Lur Santuetara joateko. Bere herrian egindako egonaldiari esker, pixka bat suspertu bezain laster, Veneziarako bidea hartu zuen. Han luzaro zain egon beharra gertatu zitzaion, otomanoekiko gerra zela eta, ez baitzen aurkitzen Palestinara joan nahi zuen itsasontzirik. 1537ko ekainaren 24an, 46 urte zituela, hartu zuen Ignaziok Ordenako sakramentua bere lagun batzuekin batean. Lehenengo Meza Jerusalemen ematea amesten zuen, baina ezinezkoa gertatu zitzaion. Urtebete geroago, 1538ko Eguberri-egunean eman zuen Meza berria Erroman, Andre Mariaren Basilika Nagusian.

Jesusen Lagundiaren fundazioa

Veneziako egonaldi luze hartan, azterketa sakona egin zuen Ignaziok bere lagunekin, aurrerantzean zer egin erabakitzeko. Aita Santuaren esanera jartzea erabaki zuten eta Erromarako bidean jarri ziren. Hara iristear zeudela, aparteko esperientzia mistikoa izan zuen La Stortako elizan; 1537ko azaroa zen. Ikuskari batean hitz hauek entzun zizkion Jaunari: «Zeuen alde izango nauzue Erroman». Talde bezala institutu berri bat sortzeko asmoa aurrera eramateko argitasuna eta adorea eman zion gertaera horrek. Jesusen Lagundia izango zuen izena aipatu institutuak. Eta 1540an onespen kanonikoa eman zion Paulo III.a Aita Santuak. Hala ere, oraindik egin gabe zeuden ordena berriaren konstituzioak.

Institutu berriaren Arduradun Nagusi izendatu zuten Ignazio, eta bera Erroman gelditu zen buruzagitzako lanetan buru-belarri sarturik. Aita Santuaren eskariak betez, Elizaren fedea zaindu eta zabaltzea izan zen hasierako urte haietan Jesusen Lagundi sortu berri honen helburua eta zeregina.

Bizitzako bere azken 15 urteotan, hainbat eginkizun bereziri emana egon zen bere lagunekin batean: institutuko Konstituzioak idaztea, pastoraltzako jarduerak, arazo sozialetarako ardura, misiolaritzaren bideratzea eta goi-mailako heziara antolatzea. Jakinduria eta zentzu onaren eredutzat hartu izan dira Lagundiaren Konstituzioak, lege- eta espiritu-alorretik begiratuta. Hain zuzen, beste kongregazio asko izan da geroztik konstituzio horietan oinarritu izan dena. Pastoraltzako jarduerari dagokionean, gogo-jardunak ematea, predikua, espiritu-bizitzako

referencia. En lo relativo a la actividad pastoral, su tarea apostólica consistía en impartir Ejercicios Espirituales, predicar y llevar dirección espiritual y, sobre todo, enseñar el catecismo a los niños y a quienes no lo conocían. Tenía una destacada sensibilidad ante los problemas sociales y llevó a cabo un enorme trabajo con los marginados, enfermos, huérfanos y con toda clase de necesitados, hasta el punto de que le llamaban el “Apóstol de Roma”.

En aquella época envió misioneros a jóvenes jesuitas a los entornos más complejos y exigentes como Trento y Alemania, e incluso a América, África o al Extremo Oriente; de este modo, san Ignacio envió misionero a san Francisco Javier a Japón y a otros a otras tierras para predicar la Buena Nueva, el Evangelio de Jesús. Francisco de Javier llevó a cabo andanzas que parecen increíbles, trabajó en lugares de ambientes complicados y hostiles, y bautizó a miles de personas.

Según avanzaban los años, el fundador Ignacio de Loyola se esforzó por organizar una buena formación de estudios superiores. En 1551 creó el Colegio Romano que, más adelante, en homenaje al Papa Gregorio XIII, se conocería como la Universidad Gregoriana. Muchos jóvenes romanos se educaron y aprendieron en aquel centro de estudios. Allí se enseñaba gramática latina y lenguas clásicas, así como filosofía, teología y derecho canónico. Algunos alumnos consiguieron el título de maestros y alcanzando la fama como profesores llevaron los métodos de enseñanza de aquel centro de estudios por todo el mundo. Un año después, en 1552, se creó en Roma el Colegio Germánico para los seminaristas alemanes; fue antecesor y modelo para los seminarios que se fundaron después del Concilio de Trento. Tenía por finalidad ofrecer una buena formación eclesial para sacerdotes jóvenes. El mismo San Ignacio escribió los Estatutos de este centro de Estudios.

Muerte y declaración de santidad

El 31 de julio de 1556, en completo silencio, Ignacio de Loyola entregó su alma a Dios en Roma, en una habitación sencilla y humilde de la casa en la que vivía, sin que se diera cuenta casi ninguno de sus compañeros. Para entonces, había completado su obra en este mundo. La Compañía de Jesús estaba plena de vida. Contaba con un millar de jesuitas repartidos en doce provincias y más de cien residencias, colegios y casas de formación. Cincuenta y tres años más tarde, en 1609, el Papa Paulo V le declaró beato, y, en 1622, Gregorio XV le proclamó santo junto con Teresa de Jesús, Felipe Neri, Isidro Labrador y Francisco de Javier. Su fiesta se celebra el 31 de julio.

zuzendaritza egitea eta, batez ere, haurrei eta ezjakinei dotrina irakastea izaten zen bere apostolutza-lana. Sentiberatasun handia zuen arazo sozialetarako eta lan izugarria egin zuen baztertu, gaixo, umezurtz eta era guztietako behartsuekin, «Erromako apostolua» deitua izateraino.

Une hartan zailenak eta gogorrenak ziren inguruetara bidali zituen jesulagun gazteak misiolari: Trentora eta Alemaniara, baina baita Ameriketara, Afrikara, Ekialde Urrunera... ere; horrela, San Ignaziok misiolari bidalia izan zen Xabierko San Frantzisko Japonian eta beste hainbat lurraldetan Jesusen Ebanjelioaren Berri Ona zabaltzera; sinestezin ahaleko ibilerak egin zituen Xabierko Frantziskok, ingurumari zail eta gogorretan aritu behar izan zuen eta milaka jende bataiatu zuen.

Urteak igaro ahala, goi-mailako heziera onaren bidea ere jorratu zuen Loiolako fundatzaileak. 1551n Erromatar Ikastetxea sortu zuen, gerora Gregorio XIII.a Aita Santuaren omenez Gregoriar Unibertsitatea deitua izan dena. Erromako gazte askok lortu zuen ikastetxe hartako heziera eta jakintza; latinaren gramatika eta hizkuntza klasikoak irakasten zituzten, baita filosofia, teologia eta zuzenbide kanonikoa ere. Zenbait ikaslek, maisu titulua lortu eta irakasle ospetsu eginik, munduko nazioetara eramán zituen ikastetxe hartako metodoak. Hurrengo urtean, 1552an, Germaniar Ikastetxea sortu zen Erroman Alemaniako apaizgaiantzat; aro berrian Trentoko Kontzilio ondoren izan diren seminarioen aurrelari eta bide-erakusle izan zen. Apaiz gazteei heziera ona eta elizkoia ematea zen beraren helburua. San Ignaziok berak idatzi zituen ikastetxe honetako Estatutuak.

Heriotza eta santu aitortua

1556ko uztailaren 31n, isiltasun osoan eman zion Loiolako Ignaziok bere arima Jainkoari Erroman, bera bizi zen etxeko gela apal batean, bere lagunetako inor ia konturatu gabe. Betea zuen ordurako mundu honetako bere eginkizuna. Jesusen Lagundiaren bizitasuna sendotua zegoen. Mila kide inguru ziren ordurako hamabi probintziatan banatuak, eta ehundik gora ziren beren elkarte-bizilekuak, ikastetxeak eta heziera-etxeak. Berrogeita hamahiru urte geroago, 1609an, dohatsu aitortu zuen Paulo V.a Aita Santuak, eta Gregorio XV.ak 1622an santu, Jesusen Teresa, Felipe Neri, Isidro Nekazaria eta Xabierko Frantziskorekin batean. Uztailaren 31n egiten da berari dagokion ospakizuna.

En comparación con las Órdenes religiosas de la época, San Ignacio llevó a cabo una fundación diferente junto con sus compañeros. Ya que esta había sido pensada para poder estar diseminados por el mundo y tener la movilidad que requerían la labor misionera.

Empleó el medio de escribir cartas con la finalidad de mantener las relaciones personales, la unidad interna de la congregación religiosa y para poder cultivar la comunión entre los miembros de la Compañía. Se conservan alrededor de 6.800 cartas y fragmentos.

Asimismo, cabe profundizar desde diversas perspectivas la figura de San Ignacio como persona, así como su enorme aportación al servicio de la Iglesia. Así, se puede recordar los Ejercicios Espirituales, la enseñanza del catecismo, cuidar de los enfermos y de los pobres, fundar la Compañía de Jesús, poner su orden religiosa al servicio del Papa, denunciar la desviación del protestantismo y fortalecer el camino de fe de la Iglesia, enviar misioneros a lugares diversos y darles consejos misionales, cuidar las relaciones entre los miembros de la Compañía por medio de cartas, sus otros escritos etc...

Finalmente, sintetizando los distintivos más importantes de la vida espiritual de San Ignacio, cabe destacar, por una parte, la expresión que tomó como lema: «*Ad maiorem Dei gloriam*» («*A la mayor gloria de Dios*»); y junto con este lema, el libro de los Ejercicios Espirituales y su práctica; y la fundación de la Compañía de Jesús.

Bibliografía

SAN IGNACIO DE LOYOLA, *Obras completas*. Ed. BAC, Madrid 1968.
TELLECHEA IDÍGORAS, J.I., *Ignacio de Loyola: Sólo y a pie*. Ed. Cristiandad 1986.
Autobiografía:
http://www.mercaba.org/DOCTORES/ignacio_loyola01.htm

Ordu arteko eliz ordenekin parekatuz gero, era berri bateko fundazioa izan zen San Ignaziok bere lagunekin sortu zuena. Hain zuzen, sakabanaturik ibiltzeko eta misio-lanak eskatzen zuen mugikortasuna izateko pentsatua izan zen.

Gutun idatzien bidea erabili zuen harreman pertsonalei eusteko, erlijioso-elkartearen barne-lotura eta taldekideen arteko elkartasuna zaindu ahal izateko. 6.800 inguru dira jasoak dauden gutunak eta gutun-zatiak.

Hainbat aldetatik aztertu beharrekoa da, bestalde, San Ignazio pertsona bezala eta berak Elizaren zerbitzuan egindako ahaleginaren ekarpen eskerga: Gogo-jardunak direla, dotrina irakastea, gaixoak eta behartsuak zaintzea, Jesusen Lagundia fundatzea, bere talde erlijiosoa Aita Santuaren esku jarria egotea, protestanteen okerbidea salatu eta Elizaren fede-bidea indartzea, misiolariak leku desberdinetara bidali eta haiei misio-aholkuak ematea, gutun-bidez taldekideekiko harremanak zaintzea, bere beste idatziak, etab.

Baina San Ignazioren espiritu-bizitzako ezaugarriarik nabarmenenak hitz bitan aipatzekotan, berak goiburutzat hartu zuen esapidea, «*Ad maiorem Dei gloriam*» («*Jainkoaren aintzarik handienerako*»), aukeratuko genuke, batetik; eta, horrekin batera, Gogo-jardunen liburua eta jarduera, eta Jesusen Lagundiaren fundazioa.

Bibliografía

TELLECHEA IDIGORAS, J.I., *Loiolako Inazio bakarrik eta oinez*, Ed. Etor donostia 1987.